

ABERRI EGUNA 2007



EZINA, EKINEZ EGINA

Naziogintza bakean, denon artean eta errespetuan, atxikimendu librean, oinarrituta.

Aberri Eguna, pazko igandean ospatzen den aldarrikapen eguna, orain 75 urte ospatu zen lehen aldiz Bilbon, 1932an. Hala zioten egun honetako bezperako kronikak:

“Bilbon inguruko mendi-kaskoetan suak piztuko dira, su berri-berriak ordean, berpizkunde-su ederrak. Berpizkundera izanen da egun ortan, bañan gure gogoen berpizkundera izanen da ere bai”

Ez zuen luzaro iraungo Aberriaren irudia berpizturik erakusteko aukerak, berehala suntsitu baitziren, Franco jeneralaren altxamenduarekin batera, euskaldunen askatasun eta nazio aldarri eta ametsak.

Luze itxaron gabe, Gernika mundu osoan ezaguna egingo zuen gertaera lazgarria jasan genuen, hementxe bertan, Gernikalde eremu honetan. 1937ko apirilaren 26an, Hitlerren aire armadak, Francoren babespean, hiria guztiz suntsitu zuen, zibilen aurkako lehen aietiko bonbardaketa izango zena gauzatuz; Pablo Picasso margolariak Gernika artelanaren bitartez, Parisko erakusketa unibertsalean, gerren zentzugabekeria mundu osoari azaltzeko, Gernika herria bakearen ikur bilakatzeko balioko zuena.

Ordutik honako ibilbidea gorabeheratsua izan da: Gerra, diktadura, etsipena, bake eza, baina baita ere; kemena, iraunkortasuna, nazioaren aldeko lana eta aldarri ozena.

Aberri eguna, euskal nazioaren eguna da. Elkartze eguna, jaieguna, konpromezuak berritzeko eguna.

Gaur, lehen Aberri Egunaren 75. eta Gernikako bonbardaketaren 70. urteurrena ospatzen ditugun honetan, Foruako herrian, UDALBILTZA[®]ko, Euskal Herriko lurralde guztietako hautetsiek gure Aberriarenganako konpromezua berrestu nahi dugu:

- 1.- Naziogintza eta euskaltasuna gure eguneroko bizitzaren ardatz bihurtuz.
- 2.- Burujabetasunaren aldeko lanean. Euskaldun guztiek, aske eta bakean gure oraina eta etorkizuna erabakitze gaitasunaren aldeko lanean.
- 3.- Denon artean, bizikidetzaren elkarrenganako errespetuan oinarrituz. Euskal gizarteak duen aniztasuna ontzat eman eta norberaren eta bestearen indarrak kontuan hartuz.
- 4.- Atxikimendu librean oinarrituta, norbanako eta kolektiboki proiektuetan parte hartzeko aukera izatea

Ezina, ekinez egina. Ez da mendirik borondate irmoak mugituko ez duenik. Nazioa egin behar dugu. Bakean egin behar dugu. Errespetuan eta atxikimendu askean oinarritutako elkarbizitza eraiki behar dugu. Berpizkunde berria sortarazi behar dugu.

Doala hemen, 2007ko Aberri Egun bezperan, gure UDALBILTZA[®]ren, Euskal Herriko Hautetsien Biltzar honen, gogo eta helburu hauekiko lanaren konpromezua.

Foruan, 2007ko apirilaren 7an